

...eta

Kitto!

906 zkia.
2014-X-31



Hildakoak ondratzeko sasoia



KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

KOMUNITATEAK

AHOLKULARITZA

- Auzo komunitateen administrazioa
- Etxebizitzak, garajeak, industriak...
- Jaurlaritzaren dirulaguntzen tramitazioa

- Fiskala
- Laborala
- Kontabilitateak
- Aseguruak



haur eta gaztetxoendako moda

kamisetak 12 euro

sudaderak 25 euro

bazkideek 2 euroko deskontua bi produktotan

...eta kitto! Euskara Elkartea Urkizu 11
 komunikabideak@etakitto.com
 943 20 67 76 - 943 20 09 18



helduentzako
 kamiseta beltzak
 S-L-XL-XXL

ASTEAN ESANAK

"Hainbat komunikabidek egiten dutena ardurua handia du eta Radio 3en kasua oso larria izan da. Euskarazko musikari eskaintzen dizkion minutu apurrak folkari ematen dizkio eta, modu horretan, euskarazko musika modernoa izan denaren irudi okerra ematen du"

(MARINO GOÑI,
MUSIKA ARGITARATZAILERA)

"Merkatura tentsioa iritsiko da Kataluniako prozesuak aurrera jotzen badu, baina gehiago eragin dezake hurrengo hauteskundeetan PPK gehiago absolutua ez lortzeak. Orain Espainia da leku bat gobernubidea bermatuta daukana Europan. Itun berriak egin behar badira, eta zailak badira, arriskua egongo da"

(XABIER ITURBE,
KUTXAKO PRESIDENTEA)

"Euskal herritarren gama kromatikoa itzalia eta gorra izan da beti: gure mundua grisen mundua izan da. Hala ere, edertasunak aldaera asko ditu: bada hain ikusgarria eta koloretsua ez dena, gama kromatiko sotilekoa eta antzematen zailagoa. Baina kultura makineriak burua kolonizatu digu edertasunaren ideia jakin batekin"

(XABIER MORRAS,
MARGOLARIA)

"Saihestu ezinekoa izan zen dopina; inork ez zion muzin egiten hobetzeari. Zorionez, ahaztu ditugu akats haiek: nahiz eta ezinezkoa den zero arriskura iristea, batek edo besteak beti egingo duelako huts, egun kirol garbia da txirringarritza. Belarriko irratitxoarena? Segurtasunean egiten duen ekarpenagatik bakarrik onartu beharko genuke"

(EUSEBIO UNZUE,
MOVISTARREKO MANAGERRA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

KASKAR.- Burezurra, kaskezurra. "San Adrian! Harrixa geratu edo kaskarra berotu" (hala esan eizion santuri Akondiako baseritar batek txingorra ari zuela kanpora aterata). Argala, ziztrina. "Aspaldi ikusi ez eta kaskarra eritxi detsat gaur zuen lagunari".

KASKARIN.- Txoriburua. "Ezeizu burua bat egin kaskarin haregaz".

KASKARREKO.- Buruan emandako kolpea. "Kaskarreko bat emoixozu mutiko horri". Buruko mina. "Euzkittan ibiltziak kaskarrekuia emon desta".

eskutitzak

- OHARRA -

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingaririk

onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunikizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA



Euskara Elkartea

ARGITARATZAILERA: ...eta kितto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /
publizitatea@etakitto.com **Elkartaren E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Ana Aizpurua.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDUA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.
PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALA:** J.L. Gorostegi.
BANAKETA-ARDUARADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kितto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679
("...eta kितto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunikizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Sabin Osorok jasoko dau Gure Balioak sarixa

Ekintzailetasun sozialaren eta enpresaren arluetan egindako biharrarengaitik Gure Balioak 2014 sarixa Sabin Osoro elgoibartarrari emotia erabagi dabe. Mutrikuko udaletxeko pleno aretuan emongo detse sarixa, azaruaren 5ian 18.30xetara hasiko dan ekitaldixan. Ongi-etorrixa egiñ eta, jarraixan, Javier Elzo soziologuak "Ziurgabetasun handiko garaietarako balioak" izenburuko hitzaldixa emongo dau. Iaz sarixa eskuratu eban Carmelo Urdangarinek emongo detsa oroigarixa Osorori.

Aurtengo saritua, bestiak beste, jatorriz-

ko Danobat enpresaren sortzailletako bat izan zan eta Eguzki eta Goiti enpresen sorkuntzan be hartu eban parte. Horrekin batera Ongarri Kultur Elkartearen eta Elgoibarko Izarra kultur alkartaren sorreran parte hartu eban, gerora Eroskin integratu zan La Elgoibarresa konsumo kooperatiba eratu eta sustatu eban eta Elgoibarko lkastolaren sorreran be berebiziko garrantzixa euki eban.

Ekitaldixan parte hartu nahi dabenak,



Sabin Osorok datorren eguaztenian jasoko dau errekonozimendua Mutrikuko udaletxian.

aurretik izena emon leike tokixa gordetzeko (943820110 telefonora deittuta edo balioak@debegesa.com helbidera idatzita).



Zurriolako hondartzan mosaiko erraldoia osatzeko 5.000 lagun batu nahi dittue azaruaren 8xan eta horretarako bonuak saltzen dabiz.

Gure Esku Dago-ren mosaikua

Ekaiñaren 8xan egindako giza-kataia arrakastatsua eta gero, Gure Esku Dago herri ekimenak biharrin segidu dau eta hurrengo erronka azaruaren 8xan Donostiako Zurriolan 11.00etan mosaiko erraldoia osatzia litzake. Horretarako 5.000 lagun batu nahi dittue eta, giza-kataia osatzeko egindakuaren bidetik, oinguan be parte hartuko dabenendako txartelak saltzen dihardue herrietako batzordiak: gaur 19.00etatik 20.30xetara Deporren egongo dira eta azaruaren 1ian 12.00etatik 14.00etara. Bestela, gureeskudago.net helbidian izena emoteko aukeria dago. Egunian bertan, konpromiso-bonua eruan biharko dabe parte-hartzailliak eta antolatzailliak guardasolak eta kapak banatuko dittue, mosaiko erraldoia osatzeko.



Garapen personalaren azokia

Azaruaren 15ian eta 16xan bittartian Untzagan egingo dan Garapen Personalaren Azokaren harira hainbat hitzaldi eta tailer antolatu dittue, datorren astian hasitta. Martitzenian, azaruaren 4an, 19.00etatik 20.30xetara Portalean hõnetek jardungo dabe berbetan: Ruben Gonzalez (Centro de Masajes Isasi), "Hipopresiva, masaje general" izenburuari jarraituta; Leire Villar eta Helena Abas-

cal (Adhara Zentroa), "Mindfulness" hitzaldixa emoten; Isabel Santiago (Centro de Masajes Isasi), "Pensamiento y salud. Cuerpo y mente. Plan Nuhico" izenburukuarekin; eta Emma Ocamica (Buzur Gimnasio Cerebral), "Como prevenir la demencia" tituluari jarraituta. Azaruaren 11rako beste hitzaldi-sorta bat preparau dabe, toki eta ordu berian eta danetara sartzia libre izango da.

Errigoraren kanpaiña

Hasitta dago Nafar Hegoaldeko "Uzta Euskarari Puzka" Errigoraren udazkeneko kanpaiña eta Eibarren be martxan jarri dabe. Kanpaiñarekin Nafar Hegoaldeko nekazari eta ekoizleri lagundu nahi detse eta, horretarako, eurak ekoiztutako produktuekin osatutako otarrak preparau eta salgai ipiñi dittue, 50 eurotan. Kanpaiñako arduradunak diñue, "Euskal Herriko Erriberan ekoiztutakua ezagutu eta konsumidu geinke Errigoraren otarrari esker". Kanpaiñaren etekiñak (jasotako diruaren %25) Nafarroan euskeria ofiziala ez dan eremua berreuskalduntzeko hiru proiektutan laguntzeko erabiliko dabe. Otarrak eskatzeko azaruaren 12ra arte Aek euskaltegira, Depor tabernara, Kultuko bulegora (astelehenetik eguenera, 17.00etatik 19.00etara) eta LAB sindikatatura jo leike eta, bestela, eibar@errigora.org emailera idatzi. Informaziño gehixago www.errigora.eus helbidian.



1959xan jaixotakuen jaixa

Aurreko zapatuan batu ziran aurten 55 urte bete edo beteko dittuenak. Untzagan taldiaren argazkixa egin eta gero, Ixuan bazkaldu eben.

Gaztetxiaren urteurren jaixa

Iparragirre kalia Eibar-ko gaztetxia zabaldu ebela hiru urte pasau dira eta hori ospatzeko jaixa egiñ eben Gazte Asanblada Barriko gaztiak aurreko asteburuan. Bestiak beste, bazkarixa eta erromerixia antolatu zittuen urteurren jaixa ospatzeko.



autuan

LOMCE EZ BATZARRA

Eibarko LOMCE Ez batzar irekixa egingo da datorren martitzenian, 18.30xetan Deporren, Eibarren aurrera begira egin biharreko lanak zeintzuk izan leikiazan zihetzeko: LOMCeren aplikaziñua zertan datzan azaltziarekin batera, gure hezkuntza sisteman aurrerapausuak emoten segitzeko zer egin leikian aztertuko dabe.

*Euskal Herrian
gure hezkuntza eraiki!*



LOMCEri EZ!

1937-XAN JAIXOTAKUAK

Azaruaren 14an batuko dira 1937xan jaixotakuak alkarrekin bazkaltzeko. Izena emon nahi dabenak 55 euro sartu biharko dittu Kutxabankeko 20955035009114284652 kontu korrontian, izen-abizenak argi ipiñitta.



Funeraria·Ehorztetxe
Mugica

<p>EIBAR</p>  <p>Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p>ELGOIBAR</p>  <p>Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p>Bulegoa Eibarko erdialdean</p>  <p>24 orduko zerbitzu iraunkorra</p> <p>943 20 19 51 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

IÑAKI BAGLIETTO ARRESE

(2014ko urriaren 24an hil zen, 50 urterekin)

Zure umorea eta samurtasuna beti izango dira gurekin.

Agur, Iñaki

ZURE KUADRILLA



22 odol-emotaileri omenaldixa

Aurreko zapatuan omendu zittuen odol-emotailiak Gipuzkoako odol-emotailien alkartekua, tartian 22 eibartar: Nerea Agirre Urien, Elena Aizpirtarte Larrañaga, Aitor Alberdi Arizaga, Rosario Alcantara Luna, Jon Aristi Narbaiza, Javier Baskaran Juaristi, M^a Libe Gorosabel Foruria, M^a Carmen Iriarte Romo, Arrate Iriondo Loitxate, Mercedes Ojanguren Astaburuaga, Mirian Palacios Navarro, Esther Gonzalez Pi-



Omenduak bazkaltzen hasi aurretik. Behian, Juan Carlos Diez errekonozimendua jasotzen. LEIRE ITURBE

nuaga, Beatriz Zabala Arginberrri, Enriqueta Zaballa Telleria, Joseba Argoitia Arano, Aitor Egaña Lejardi, Pedro Higuera Rubio, Jose Mi-

guel Izagirre Irusta, Juan Azkune Uranga, Ramon Badiola Quintanilla, Juan Carlos Diez Varela eta Jose Manuel Gil Uriarte. Diplomak eta oroigarriak jaso eta gero, bapo bazkaldu eben Unzaga Plaza hotelian.

asteko
654.338
datua

euro gehixago jasoko dittu udalak aurreikusitakua baiño, Diputaziñuaren Foru Funtsaren bidez. 2014an guztira 15.641.669 euro jaso dittu udalak, 570 euro biztanle bakotzeko, 2013an baiño %7'5 gehixago.

Inmigraziño jardunaldixeri agur esan detse

Eguaztenian udaletzeko patixuan egindako solasaldixarekin agurtu zittuen "Aurreiritzi eta estereotipoak desegiten" jardunaldixak. 50 bat lagun alkartu ziran inmigraziñuaren gaiñian berba egitteko eta Gorka Errasti udaleko inmigraziño arduradunak eta SOS Arrazakeriako Agustin Unzurrunzagaren azalpenak entzuteko eta,

amaieran, "Zurrumuruak desegiten" izenburuko materixala banatu jakuen daneri. Udalak, Mugak eta SOS Arrazakeriak alkartuak antolatutako jardunaldixak "arrakastatsua" izan dirala diñue antolatzaillik eta eskerrak emon nahi detsez hitzaldixetara zein aste honetako tertulixara ekarpenak egittera gerturatutako guztieri.



Agustin Unzurrunzagak hainbat azalpen emon zittuan. SILBIA

Juezek eta Olanok San Andres kaleko etxiak ikusi zittuen. SILBIA HERNANDEZ



Markel Olano bisitan

Aurreko asteko eguenian Markel Olano EAJ-PNVko Ahdun Nagusi izateko hautagaixa Eibarren egon zan, herriko errealidadia eta arazuak bertatik bertara ezagutzeko eta Eva Juez alkategaixarekin batera hiriarri buruzko proiektua lantzeko. Bestiak beste Matsarixa, Arrate-Bide eta Millaflores bisitatzen egon ziran eta "he-

rriarraren, enpresarixuen eta Eibar Kirol Elkartearen esutik euren kezka eta arazuak" ezagutu eta gero, lehentasuna "ekonomixia eta enplegua sustatzia" dirala azpimarratu eban eta, horrekin batera, "Eibarrek dittuan gabezieri konponbidia emotia, Gipuzkoa eta Euskadin erreferentziatzko hirixa izateko".

Abeslari handia izango dugu azaroaren 8an Coliseoan, 20.30etan eskainiko duen kontzertuan. Gironan jaiotako Silvia Perez Cruzek Las Migas taldearekin hasi zen musika munduan geroago bakarlari ibilbideari heltzeko. Orain dela hiru urte berak grabatutako "En la imaginacion (Contraaix/Karonte) diskoak unibertsala egin zuen, jazz eta Kubako musika latindarra lagun. Ordutik izarra da estatuko firmamentoan eta, urte osoa hartuta badu ere, tartea egin du Eibarrera etortzeko. Sarrerak 15 euro balio du eta kontzertuak ordu eta erdi iraungo du gutxi gorabehera.

- Zelako kontzertua eskainiko duzu Eibarran? Erabakita duzu abestu beharrekoa?

"Entre cuerdas" deitu dudana proiektua aurkeztuko dut. Gustora abesten ditudan piezekin, Joan Antoni Pich-ek, Javier Galianak eta nik neuk konpondutakoak soka boskotearentzat. Urtebete da Madrilgo Auditorio Nazionaletik proiektua enkargatu zidatela, askatasun osoa eman zidaten eta merezi zuela pentsatu nuen, kontzertu bakarerrako balitz ere, zeozer egitea soka lauko tearekin. Azkenean lortu dugu eta, hain po-

MIQUEL ANGEL DANIEL

"Zuzenekoaren arriskuzalea izan naiz beti"

SILVIA PEREZ CRUZ, abeslaria

zik geratu gara egindakoarekin, aurten beste disko bat aurkeztzen badihardugu ere, edozein aitzakiaz baliatu garelara hainbat alditan errepikatzen. Guk bikain pasatzen dugu eta eurek zoragarri jotzen dute.

- Zeintzuk egongo dira zurekin eszenategian azaroaren 8an?

Miguel Angel Cordero kontrabaxua, Joan Antoni Pich celloa, Anna Aldoma biola eta Carlos Monforte eta Elena Rey bibolinak. Miresgarriak denak!

- Musika ume zinenetik bizi izan duzu?

Jaio aurretik! Amak abestu egiten zuen eta aitak entseguak egiten zituen bere habanera taldeekin... Hiru urterekin apuntatu ninduten musikan, bostekin pianoa hasi nuen eta zazpirekin saxoa. Etxean, gainera, normala zen batek gitarra jotzea eta besteok ahotsak egiten hastea; baita autoan ere. Horregatik banatu dut beti hiru zatitan nire harremana musikarekin: familiartekoa (komunikatzeko beste modu bat), ikasketena (ordu asko ikasten... lizentziatu nintzen arte) eta bokazionala (hamabi urterekin deskubritu nuen beharra). Orain igual harreman profesionala gehitu beharko nioke... baina zaila egiten zait desberdintzea.

- Zenbateko eragina izan du zure ibilbidean aita musikoa izateak?

Aitarekin ez nuen harreman handirik, musika baitzen ia gure komunikazio bakarra. Hamabi urte nituenetik eta orain dela lau urtera arte urtean pare bat aldiz egoten ginen elkarrekin, hiru edo lau abesti jotzen. Haren umiltasuna, gorputz eta arima aritzea eta gauza xumeengatik zuen zaletasuna na-

barmenduko nituzke. Amak eragin handiagoa izan du nigan: berarekin hazi nintzen, oso ondo abesten du eta, nik sentitzen dudana askatasun osoz aditzera emateko animatzeaz gain, baliabideak, espazioa eta denbora eskaini dizkit... Aurrejuzkurik gabe.

- Zergatik aurkeztzen zara abizen biekini?

Hori delako nire izena. Gainera, biek eskaini didate hainbeste baloratzen dudana sentsibiltatea.

- Estilo asko nahasten dituzu zure musikan?

Ezagutzen ez zaituen bati zelan aurkeztuko zenioke egiten duzuna?

Nire abestiak konposatzea dut gustoko eta baita besteak berrinterpretatzea ere. Nire ahotsa iberiarra dela uste dut. Estilo askotatik ikastea nahi izaten dut eta, musiko jakin batzuetatik abiatuta, nire lengoia sortzea. Baina egiten dudana bakarra da abestiak kantatu, istorioak kontatu eta ahalagindu, pixka bat bada ere, hegan egiten.

- Kontzertuen agenda ezin estuagoa duzu.

Zuzenekoarekin edo estudioko lanarekin gozatzen duzu gehiago?

Zuzeneko maite dut, arriskuaren zale naiz, zelan joango den ez jakitearen bertigoak harrapatzen nau, bat-batekotasunak, publikoarekiko konplizitatea... Baina onartu behar dut orain dela hiru urte "11 de novembre" diskoa grabatu nuenetik, mundu berria deskubritu nuela, zuzenekoan egin ezin dituzun gauzak egiteko denbora geldituzeko espazio bat eskaintzen dizuna. Bi lanbide izan daitezke, eta biak maite ditut: estudioa mentalagoa iruditzen zait eta zuzeneko animalagoa.

Coliseorako egitaraua

- Blancanieves
- Meu meniño
- Tonada de luna llena
- Noche en el río
- Memoria de pez
- Mechita
- Folegandros
- Corrandes d'exili
- Covava l'ou de la mort blanca
- La tarde
- Por tu amor me duele el aire
- 20 años / Temps perdut
- Así es mi boca
- La lambada
- Llorando se fue

XABIER VILA



Gaur, urriko azken barixakua izatiaz gain, Santu Guztien bezpera gaba be bada. Holan esanda, batek baiño gehixagok ez detsa aparteko esanahirik topauko fetxiari. Baiña pixka bat fijatzen hasi ezkerro han eta hamen kalabazak ugaritzen hasi dirala begibistakua da eta gaur illuntzian baten bat koko-jantzitta ikustia tokauta be, bardin detsa sustua emon ala ez, arrarua behintzat ez jaku egingo. Amerikako Estatu Batuetako eta batez be hango pelikulen eragiñez danak dakigu gaur Halloween dala. Baiña badakizue Halloween berbia entzun barik be, gure aitxitxamamak halako gaban kalabazak eta izarak erabiltzen zittuela ingurukuak ikaratzeko?



Beldurrari eta arimeri eskindutako gaba

Ez dira horrenbeste urte gurian halako gabari Animen Gaba esaten zetsen eta, gaur egunian indarra galdu daben ohitturia izanda be, XX. mendiaren lehen erdiraño gaztiak, batez be mutillak, inguruko ortuetako kalabazak, arbiak, patatak, erremolatzak... hartzen zittuen, hustu eta zuluak egiñ eta gero, barruan kandelak ipintzeko eta gero bidebazarretan lagata jendia beldurtzeko as-

muarekin. Eta asmo berarekin izarak eta trapu zaharrak burutik behera jantzi eta mamuak izango bailiran auzokuak ikaratzten ibiltzen ziran. Gaztaiña erreak jateko eta umiak eskian ibiltzeko sasoia be bazan.

Holan jasota dago, bestiak beste, Ahotsak.com proiektuari esker jasotako testigantza askotan eta Toribio Etxebarriak berak, 1887xan jaso eban "Animen egunian, oittura zarra

zan Eibar-en, jan da eran tabernan eittia moskortu arte. Baita kaleko neska mutillak, alkarregaz, baserrixetan gastaña erriak jatia". Edo Berrizgo Herminia Lazpitari jasotako berbak gogora ekarrirta, "gabian edo illuntzian ipintzen zan kalabazia, begixak eta ahua egin, barruan kandela sartu ixotuta, kanpaidorrian. Kalabaza hustu egitten zan, zuluua egin azpitik, hazixak-eta kendu, eta gero ipintzen jakon kandela barruan eta begixak eta ahua eterata ipintzen jakozan, zein da buru baten formia. Eta sartzen jakon kandela erdixan, eta begixetatik eta sudurretik-eta, argixa ikusi egitten zan. Gaiñera orduan ez eguan argirik kalietan, dana illunetan...".

Izan be, holako ospakizunak gurian Neguko Jaixen testuinguruan kokatu izan dira betidanik eta, Europako Mendebaldeko beste herrialde gehixenetan moduan, ezaugarri asko errepikatu egitten dira: nekazarixen produktuak sal-

tzeko azokak, eskian ibiltzeko errondak, koko-jantzixak, hil eta berpiztiarekin lotutako errituak...

Beste askoren moduan jatorrian paganuak ziran holako jaixak. Euskal Herriko ohittura zaharraren parekua izan leikian Halloweeneko ohitturak, baiña, aldaketa haundixak izan dittue Kristautasunaren eragiñez eta gaur egun holako egunak batez be bixarko egunarekin, hildakuak gogoratzeko eguna dan Domusantu edo Santu Guztien Egunarekin lotzen dittugu nahittaez.

Kanposantuko ordutegixa

Izan be, gaurkua beldurrari eskindutako gaba bada, bixarko eguna kanposantuetara juateko eta hillobixak lorekin apaintzeko eguna da gurian. Horregaittik, asteburu honetan ordutegi berezixan zabalduko dittue kanposantuko atiak: gaur, bixar eta etzi 08.00etatik 20.00etara zabalduko dabe kanposantua, hillo-



Kanposantua ordutegi berezixan zabalduko dabe asteburuan. LEIRE

bixak lorekin apaindu eta, bestela, bisitan juan nahi dabena horretarako aukeria euki deitzen. Horrekin batera, azaruaren 2xan (domekan) hildakuen alde egiten dan mezia aurten San Andres elizan izango da, 12.00xetan, eta ez beste urte batzuetan bezala kanposantuko kaperan.

soia. Holan ba, hildakua ondratzeko afarixak egiten ziran sasoi gogoratzeko ospatzen dogun Gaztañerre eta pareko jaixetan gaztaiñak jatia ez da harritzekua.

Testuinguru horretan Magosto jaixa ospatzeko tartia hartuko dabe As Burgas Galiziako Etxekuak. Azaruaren 8xan eta



Galiziako Etxekuak azaruaren 8xan eta 9xan ospatuko dittue Magosto jaixak eta Gaztañerre azaroko bigarren astelehena izango da aurten. LEIRE ITURBE

Gaztaiñak, beldurrak eta hotza uxatzeko

Hildakua gogoratzeko sasoi ez eze, gaztaiñak jateko sasoi be bada. Urte sasoi honetan ipintzen dittue kalia gaztaiña erriak saltzeko postuak, ointxe dalako gure basuetan gaztaiñak batzeko sa-



Gaztaiña erriak sasoi hontan jateko ohitturia aspaldittik dator.

9xan Urkizun egingo dabe jaixa: zapatuan 11.00-etan Galiziako produktuak saltzeko taberna zabalduko dabe eta 13.00ian gonbidatuari harrera egingo detse. Ordu horretan hasiko da etxian egindako enpaden lehiaketia eta irabazleri sarixak 14.00xetan banatuko jakuez. Gaztaiñak arratsaldeko 18.00etan ailegauko dira, Ribeiro ardu eta txorizuekin lagunduta. Eta domekan 11.30-xetatik 14.30xetara segiduko dau jaixak, Os Galaicos taldekuen musikiak girotuta.

Gaztañerre 10ian

Eibarren azaruaren 10ian ospatuko dogu Gaztañerre. Askok ohittuari eutsiko detse eta soziedadian zein famelixa giruan alkatuko dira, alkarrekin afaltzeko. Menuan, zelan ez, marraskilluak eta gaztaiñak ez dira faltan izango. AEK Euskaltegiak azken urtiotako martxari jarraituta Paloma tabernan alkatuko dira 19.00-etan, jaixarekin bat egittera animatzen diran guztiakin batera "Ondra janak tabernaz taberna" egitteko asmuarekin. Kalejira eta afari merienda egingo dabe, trikitilarixak lagunduta.

7.338.600 ...ETA KITTO! ALE (906 ZENBAKI), 845 BAZKIDE

...eta kitto!
ko
bazkide izan nahi dut

...eta kitto! Euskara Elkartea
Urkizu 11, solairuartera. EIBAR. Tel.: 943 20 09 18
elkartea@etakitto.com

urteko kuota

- 16 urtetik behera
5 euro
- Lanean dihardut
45 euro
- Langabea, ikaslea,
jubilatua, etxekoandrea
15 euro
- Borondatez, diru
gehiago eman nahi dut
..... **euro**

Izen-abizenak: _____
Helbidea: _____ Herria: _____
Telefona: _____ e-maila: _____
Lanbidea: _____ Jaiotze data: _____
Kontu zenbakia (20 digito): _____

Euskal selekzioko ekipamendu berria aurkeztu zuten Ipuruan

Dani Garcia, Eneko Boveda eta Laura Prieto Eibar FT-ko jokalariek izan ziren aurkezpen horretako protagonista, Athletic-eko Eli Ibarra eta Mikel Ricorekin eta Realeko Maialen Zelaiarekin martitzenean Ipuruan egindako ekitaldian. "Jatorrian txiki, garai-

penean Handi" leinari jarraituta, Astorek bi urterako ekipamendu osoa diseinatu du, "aurrekoa baino apalagoa eta retro inspirazio-koa". Euskal Seleksioak aurten ere gabonetan izango du partidua: Katalunia izango da aurkaria abenduaren 28an San Mamesen.



Rico, Boveda, Garcia, Ibarra, Prieto eta Zelaia erropa berrieekin.



Errugbilarien porrotak azken jardunaldian

Ohorezko B mailako senior taldeak 18-5 galdu zuen BabyAuto Zarautz-en Asti zelaian eta sailkapeneko behe aldera jauzi da. Iker Lazkanok lortutako entseguarekin konformatu behar izan zuten Eibar Rugby Taldekoek. Taldeak nabari ditu Iñigo Falaganen eta Antonio Gallastegiren bajak eta oraingoan, gainera, Urtzi Abanzabalegik ere ezin izan zuen jokatu zigortuta dagoelako. Pello Urkidi entrenatzaileka ere gehiago pentsatzen du etorkizunean orainaldian baino eta gero eta junior eta promesa gehiago dihardu taldean sartzen.

Nesken taldeak, bestalde, 0-61 galdu zuen Gaztedirekin eta Igor Sendino entrenatzailea ez zen oso gustora gelditu eibartarrek egindako jokoarekin, "anbizio eta erritmo falta" nabaritu baitzuen taldean. Horrez gain, Teserak hiru aste eman beharko ditu zelaitik kanpo sudurrean hartu zuen kolpearengatik. 16 urtetik beherakoen mailako partiduan, bestalde, La Unica liderra erraz nagusitu zitzaion eibartarrek eta arrasatearrek osatzen duten taldeari: "Jokalaria asko min hartuta zeuden eta 14 jokalarirekin jokatu genuen bakarrik. Aurkariak, gainera, azken urtekoak dira, fisikoki gureak baino indartsuagoak", diote prestatzaileek.



Debarrena lider areto-foballean

Santurtzi aurreko liderrari 2-5 irabazita, Concepto Egile Debarrenen taldeak Nazional A mailako bigarren multzoko lidergoa eskuratu du. Atsedendaldira banako berdinketarekin heldu ziren, zutoinean hirutan jo eta gero partidua galtzen hasi ondoren. Raul Nietok eta Mikel Treviñok bina gol sartu zituzten eta Gabik bestea; hala ere, Edu atezaina ikusgarri egon zen eta ondo asmatu zuen bere erabaki teknikoetan.

Etzi eguerdian, 12.30etan hasita, Ibarrenen aurka gipuzkoarren arteko derbia jokatu da Elgoibar-ko Olaizaga kiroldegian.

Gazteagoen mailetan, Debarrenen taldeek honako emaitzak izan zituzten: jubeniletan, King Kong-ek 5-4 galdu zuen Goierri egindako bisitan; kade-teenan, Sukiak 3-7 irabazi zuen Goierri B-ren kantxan; eta, infantiletan, Sukiak 5-3 galdu zuen Uzturperen kontra.



Urteroko eskaintza Dorletako Amari

Aurreko domekan Urkuzua zikloturisten taldeko partaide batzuk Arlabaneko gaineraino joan ziren han Dorletako Amari lore-eskaintza egiteko. Handik bueltan anai arteko bazkaria egin zuten, horrela denboraldiari amaiera emateko.

Waterpolistak garaile Iruñera egindako bisitan

Urbateko seniorren taldea erraz nagusitu zitzaion Larrainari (6-15) ligako lehenengo jardunaldian: garrantzi handiko garaipena eibartarrena, iruñarrak aurkari zuzenak izan baitaitezke igoera lortzeko borrokan. Jubenil mailako taldeak bidaia bera egin zuen eta 5-9 irabazita bueltatu zen gurera.

Zazpi kilometro eta erdi ezin herritarragoak

Asier Cuevasen izenarekin jokaturako herri-lasterketaren bigarren edizioak 302 atleten helmugaratzea bizi izan zuen, "izena eman zutenek baino hogeit bat gutxiago" antolatzaileek diotenez. Eibartarrak izan ziren parte-hartzaileen erditik gora (169 guztira) eta 59 emakumek (euretatik, 44 eibartarrak) bete zituzten zazpi kilometro eta 300 metroak. Ibon Esparza donostiarrak (22 minutu eta 21 se-



Asier Cuevasen pistolak eman zion hasiera probari. LEIRE ITURBE

gundo), Joseba Larzabal irundarrak eta Ritxar Fernandez oñatiarrak osatu zuten gizonen podiuma eta Aitziber Urkiola eibartarrak, Sonia Alonso oriotarrak eta Vanessa Cerrajero azpeitiarrak emakumezkoena. Sailkapen orokorrean, Pello Osoro izan zen lehenengo eibartarra, 8. postuan, izen handiko atletekin osaturako podiuma izan zuen proban.



Saritutakoen argazkia proba amaieran. LEIRE ITURBE

Eibar Eskubaloia sendo lidergoan

Aurreko denboraldian maila bat gorago zegoen Ereintzari 24-26 irabazita, Fernando Fernandez mutilek sendotu egin dute sailkapeneko lehenengo postua eta orain bakarrik Santoña dute atzetik, puntu bakarrera. Partidu zailak gainditu eta gero, bihar eguerdiko 12.00etan Somos Eibar Eskubaloioek Urdaneta azken sailkatua hartuko dute Ipuruan.

Eibar Eskubaloiko bigarren talde seniorrak, Haritzak, 26-27 galdu zuen Leitzaraneekin Ipuruan. Jubenil eta kadete mailako taldeek, bestalde, garaipen garrantzitsuak lortu zituzten Irunen, Bidasoaren kontra: 29-32 jubenilen kasuan eta 22-28 kadeteenean. Eta Eibar A taldeko neska jubenilek Aiala ZKE-ko zarauztarrak baino gehiago izan ziren: 30-15 irabazita, 3.ak dira sailkapenean.



Gorrotxategi teilak eta zigarretak • Karramarro errusiarra %100 txaka-hankak • Rosara pikillo piper-saltsa • L'Himalayen gatz larrosa • 2011ko Marin Codax albariñoa • 2013ko Gran Feudo ardo gorria • El Navarrico zainzuri zuria 6-8 ale • Absolute Level vodka • Chivas Regal whiskia (12 urte) • 2005eko Gauduim Erreserbako ardo beltza • Gin Mare gin-a + kopa • Castaing foie gras osoa • Gorrotxategi turroi gogorra • Club Gourmet txokolate-opilak • 2011ko Monte Real kiantza beltza • Amor de Madre Errioxako ardo beltza • Abadia S.Quirce Erreserbako ardo beltza • Anta 16 kiantza beltza • Dantza pikillo piper osoak estra • Pedro Luis alkaxofa-bihotzak • Madari osoa Coquet ardoarekin • Arkume-izterra Cascajares oliba oliotan • Cascajares izter errea • Top Jabu urdaiazpiko ondua • Don Iberico ezkur-iberikoak • Julian Martin ezkur-txorizo iberikoa • Julian Martin ezkur-saltxitxoi iberikoa • Delicass ahate-antzara-gibela • Martiko ahate-urinekoa latan • Covap ezkur-solomoa sobreetan • Eci ahate-urdaiazpikoa • Eci iberikoak • Vasco-Navarra ardi-gazta latan • Covap ezkur-urdaiazpikoa sobreetan • Vasco-Navarra Idiazabal gazta • Lau 1724 tonika • Cuvee Bruno Paillard Brut Premiere xanpaina • Moet Chandon Brut Imperial xanpaina • Remy Martin cognac-a • 2007ko Marques Riscal Erreserbako ardo beltza • Rose Collet Brut xanpaina • Azpilicueta kiantza beltza • Glorioso kiantza beltza • Arienzo kiantza beltza • Verdejo Blume ardo zuria • Duron kiantza beltza • Ederria kiantza beltza • Illy kafe ehoa • Soles de Gredos hostopilak • Guyliau itsas-fruituak • La Higuera piku-bonboia • Peñin artisau-txokolate esneduna • Peñin artisau-txokolate zuria • El Caserio piñoidun karamelu bigunak • English Breakfast Twinings te-ak • Blueberry Clair de Lune arandano-bonboiak • Peñin almendra-teilak • Montesori askotarikoak • Peñin trufak • Tortiera Costurero Dalcolle panettone-a • Dalcolle panettone-a • Toque Espezia-gin&tonic-a • 1880 almendradun txokolate-turroia • Vega Carabana oliba-olio birjina estra • Casti. Tabernas oliba-olio birjina estra • Vicens jogurt eta almendradun turroi kurruskaria • Alicante 1880 turroia • Artesania almendradun txokolate-turroia • Doña Jimena txokolatez betetako almendrak • Suchard txokolate-turroi kurruskaria • Mata gabonetako askotarikoak • Valor txokolate-turroia (egurrezko kaxa berezia) • Jijona 1880 turroia • Led Inves I4614fhd gr 46" telebista

2.000 euroko
Gabonetako OTARRA
GAUR (19.00-21.00)
BIHAR (13.00-14.00)
KALEAN EROSTEKO AUKERA

SALMENTA LEKUAK: - AEK euskalategia - Arriaundi OKINDEGIA - Bolintxo OKINDEGIA - Depor TABERNA - Ego Gain TABERNA - El Corte Ingles - ...eta kitto! - Echeto - Urkizu - Guridi TABERNA - Isasi OKINDEGIA - Izadi LORADENDA - Kultu TABERNA - La Golosina - Maria Ospital (Calbeton eta Jardinetan) - Mugika HARATEGIA - Ogi Berri Urkizu - Otegui HARATEGIA - Udal Euskalategia - Untzaga PRENTSA - Zabaleta OKINDEGIA - Zubi Gain TABERNA

<p>Gabonetako OTARRA</p> <p>Prezioa: 1€</p> <p>Zbk:</p>	<p>Gabonetako OTARRA</p> <p>2.000 €ko</p> <p>baliua duen Otarra</p> <p>Prezioa: 1€</p> <p>Zbk:</p>	<p>kitto!</p> <p>Euskara Elkarte</p> <p>Industria 15 apurteko aparteko ez indutako enpresa gisa erregistratuta</p>
---	---	--



Iparraldeko tribunaren obren aldeko abantailak azaltzen

Martitzenean eta eguaztenean ikerketa baten datuak eta euren proiektua azaldu zituzten. Gorka Unamuno Eibar FT-ko arkitektoak eta Borja Idiakenez Bosark enpresako teknikariak. Lehenengo egunean egindako aurkezpenean Iparraldeko tribuna berriak Indalezio Ojangueren kalean "eragingo duen itzala gaur egungoarekin konparatuta ia ez dela igarriko" azpimarratu zuten. Horretarako datu astronomikoak hartu zituzten kontuan eta solstizioei erreparatu. Ondorio gisa, "eguerdiko eguzkiarekin, dorreen arteko parkera bakarrik abenduan helduko zen; eta arratsaldeko eguzkiari erreparaturaz, mendebaleko dorrea da itzala egiten duena", esan zuten. Unamunoren esanetan, gainera, "gaur egun mekanotu-

boak hartzen duen espazioa baino gutxiago hartuko du tribunak obra amaitzerakoan: gutxiago irtengo da eta baxuagoa izango da". Foball taldeko proiektuegileen arabera, "kutsadura arloan" ez dute inolako kalterik ikusten.

Eguaztenean, bestalde, Iparraldeko tribuna horretan egin beharreko lanen abantailak azpimarratu zituzten: "Proiektuak sei bomitorio edo irtengune eta zelairako lau sarrera izango ditu, guzti hori segurtasunaren mesedetan". Orain lau harmaila dituen tribuna 11 izatera pasatuko da, 900 jarleku irabaziz, proiektuegileen arabera. Gaur egungo horma kendu eta klubak behar dituen beste espazio batzuk sortzea dute helburu. Proiektuaren kostoa "bi milioi euroren bueltakoa" izango zen.

Amaia Ugarteren liburua Eibar FT-ri buruz



Gara egunkarian Eibar FT-ren berriak eta emakumezkoen foballa kubitzen duen Amaia Ugarte kazetari eibartarrak "Eibar. El triunfo del tesón" kaleratu du. Gararekin urriaren 11n atera zen kalera eta, gure herrian agortu eta gero, berriro dago salgai kioskoetan. Astero editorialak enkargatu zion lana Ugarteri eta Alex Aranzabal foball taldeko presidentek idatzi du hitzaurrea.

Urkomendi14 herriko talde onena Erregional mailan

Bost jardunaldi jokotuta, aurten debutatu duen Urkomendi14-k atzean laga ditu Eibarko beste hiru taldeak 1. Erregional mailako VII. multzoan. Azken jardunaldian Urkomendikoek 1-6 irabazi zioten Arizmendiri, Eibartarrak-ekoek Armagiñak-i 2-1 irabazten zioten bitartean; Urkik, bestalde, 2-1 galdu zuen Soroluzen. Sailkapenean Urkomendi14 Bergara liderrarengandik puntu bakarrera dago (12 ditu); Eibartarrak-ek 7 ditu, Armagiñak-ek 5 eta Urkik 3.

...eta kitto! 14/X/31 • 906 zkia.



Herenegun Iparraldeko tribuna bisitatu zuten kazetariak.

Ipurua Aurrera Portalean

Kaltetutako auzotarren elkartekoek, bestalde, euren asmoen berri agertu zuten herenegun arratsaldean Portalean.

Aurreko astean kaleratu genuen informazioaren harira, Ipurua Aurrerakoek gauzak argitze bidean esan digutenez, "Eibar FT-k eurekin izan duen jarrera kritikatu dute; ez ostera Udalarena", euren esanetan

azken honek "zuzenago jokatu baitu". Bestalde, alderdi politikoen jarrerari dagokionez, EH Bilduk Ipurua Aurrerakoekin bat egin zuela esaten genuenean, "Eibar FT-ren proiektuaren aurkako jarrera" adierazi nahi genuen. Bestela, biek proposatzen dutena desberdina delako: EH Bilduren obra askoz txikiagoa da eta aforoan murriztagoa.



Foball Profesionaleko Ligak Adelante Ligako entrenatzaile onenaren saria eman zion Gaizka Garitanori (argazkian Simeoneren eskutik jasotzen), baina sariarik gabe geratu ziren Irureta, Yuri eta Jota kandidatopak. Joko garbiarena bai jaso zuen Eibarrek, liga irabazlearenarekin batera, Alex Aranzabalen eskuetan.

Domexan hasiko da patinaia sasoi

Ordu aldaketarekin batera eta martxoan berriro aldatu arte iraungo du patinaia sasoiak Ipurua kiroldegian. Guztira, 20 domeketan egongo da praktikatzeko aukera, Sanandresetan eta Erregeetan kenduta, beti ere 18.00etatik 20.00etara. Martxoaren 29an amaituko da sasoi.



Xala-Saralegi etzi Astelenan

Astelenak kaiola barruko beste bi partidu hartuko ditu domekan: Xala eta Saralegi izango dira nor baino nor partidu nagusian eta Taintak eta Artolak neurtuko dituzte indarrak azkenean. Jaialdia hasteko, Apezetxea-Zabaleta eta Jaunarena-Zubietatik bikoteen arteko norgehiagoka izango da.

EZTEIEN

32. zenbakia

2014ko UDAZKENeko gehigarria



JOSU TORREALDAY

PUBLIZITATEA:
Itziar ALBIZU eta Belen ULAZIA
Telefonoa. 943 20 67 76
Faxa. 943 20 28 72
publizitatea@etakitto.com

GEHIGARRIA

Ezkontzeko erabakia ez da egun batetik bestera hartzen. Normalean buruari buelta asko ematen diogu horrelako “abenturan” sartu baino lehen. Erabakia hartua baldin badaukazue edo ezkontzeko aukera aztertzen ari bazarete, lagungarri izango zaizkizuen **8 puntu dituzue jarraian**. Animo eta aurrera, hainbeste aldiz amestu duzuen egun horrek merezi du-eta!

1. Hitz egin.

Hori da bikoteak egin behar duen lehenengo gauza. Nolako ezkontza egin nahi duzue? Intimoa ala jendetsua? Originala eta ausarta ala klasikoa? Gaur egun eskaintza oso handia dago; horregatik ezinbestekoa da ondo pentsatzeko astia hartzea. Guztia erabakita daukazuenean eutsi zuen asmoei. Besteen iritziak entzutea beti dago ondo, baina azken finean ez ahaztu zuen ezkontza dela eta zuek zaretela erabakitzen duzuenak.

2. Aurrekontua ezarri.

Hasieratik aurrekontu bat ezartzea komeni da. Egingo dituzuen gastuak ondo kontrolatu behar dituzue, ustekaberik izan nahi ez baduzue behintzat. Gastuak ondo kontrolatzeko, esate baterako, excel taulak erabil ditzakezue.

3. Gonbidatuen zerrenda.

Zuetako bakoitzak bere zerrenda prestatu dezake. Ondoren zerrendak bateratu ditzakezue. Zerrenda hau behin eta berriro errepasatzen joan zaitezte eta saiatu biok ados egoten zerrenda definitiboarekin. Egun horretan benetan zuekin egotea nahi duzuen jendea aukeratu, nahiz eta jakina den zenbait “konpromiso” ezin direla baztertu.

4. Ezkonduko zaretan lekua.

Ezkontzako alderik zailenetakoa da, batez ere hasieratik gauzak argi ez baldin badituzue. Aukera handia dago. Lehenengo eta behin eliza, ermita, udaletxe, epaitegia... aukeratu, eta ondoren jate-txteen zerrenda bat prestatu, bakoitzaren kapazitate, aurrekontu eta zuen iritziekin. Zerrenda horrekin errezagoa izango zaizue lekuak baztertzen joatea, azkenean batekin gelditu arte.



JOSE TORRENTAY



CALBETON, 16
-EIBAR-

ROCA

TEL.
943 20 80 06

**Ezkontza egunerako guztia...
...ZURE ESKU!**

lfar kale, 6

boga

943702024

ESTILISTAK & JANTZIDENDA

I ♥ 9,99 €



arropa berria asteartero



Argazkilaritza estudio
argazkilaritza fotografia
 ARGAZKILARITZA | FOTOGRAFÍA
 WWW.JOSUTORREALDAY.COM
C/ FERMIN CALBETON #47 A3 EIBAR (GIPUZKOA) - 943 53 08 58 - 579 95 08 58

fasprint
Inprimategia
Aukera zabala ezkontza gonbidapenetan eta papertegian orokorrean
 fasprintei@yahoo.es - www.imprentafasprint.es
 Ego Gain 11 ac - EIBAR - Tel./Faxa: 943 20 16 13

BIDAIA PERTSONALIZATUAK
Gure gidariekkin
Prezio lehiakorrak
Gure produktu berezienak:
 Venezuela, Costa Rica eta India
Azken aldian:
 Estatu Batuak, Kubarekin nahastuta
bidaiak
Matienan gaude **94 465 75 77**
 Eibartik 10 minutura (autopistan Abadiñoiko irteera) **www.bagoaz.com**

Bidebarrieta, 5 www.capiestetica.es Tel. 943 201 547
CAPI
Aurpegi tratamenduak
 – Mesoterapia birtuala
 – Radiofrequentzia (zimurrak)
 – Mantxak
 – Mikrodermoabrasioa
BETILE LUZAPENAK
GEL ATZAZKALAK
IA BETIRAKO MANIKURA
LASER DEPILAZIOA 30€ zona bakoitza
Gorputz tratamenduak
TEKNIKAK: Kabitazioa / Radiofrequentzia / Mesoterapia
 Laser lipolitikoa / Presoterapia / Elektroestimulazioa
5 saiko BONOAK / Zona bat: 35 euro saioa

RPS 189/09
KERaLa
www.estetikakerala.es
www.cosmeticalbienestar.es
Urkizu, 11 solairuartera **943 53 05 25**
Makillajea Etxean Bertan
 Estetika Tratamenduak, Manikura, Depilazioak, Emaztegaiendako BONO BEREZIA...

ROSANA
ILEAPAINDEGIA
943 120624
 URKIZU PASEALEKUA, 7 - BEHEA

Aire berriak!
 Estaziño, 4
943 254776
Khôl Estilistak

Zure ezkontzako eguna BEREZIA delako
LUCCI ILEAPAINDEGIA
 Bidebarrieta, 60 Tel. 943-121562

BILATUIGUZU GURE SARE SOZIALETAN:
 facebook.com/castanopeluqueros
 twitter.com/castanopelu
CASTANO
 PELUQUEROS
 Fermin Calbeton, 1 **943 207047** contacto@castanopeluqueros.es www.castanopeluqueros.es

5. Soinekoa.

Jatetxea aukeratua daukazuenean soinekoa aukeratzen joateko unea iritsi da. Emaztegai gehientzako lanik ederrena da hau. Ideiak oso garbi ez badituzu, tendentzia desberdinak aztertzen joan zaitezke. Horretarako pasarelak eta modako aldizkariak begiratu, gustokoak dituzun ideia, estilo eta diseinuak jasotzeko. Ondoren denda edo tailerrak bisitatzeko unea iritsiko da; ziu zuretzako egokia den soinekoa aurkituko duzula. Aurtengo pasaralei begiratzen badiezu, kolore grisaren aldeko apostua ikusiko duzu; enkajeak leku garrantzitsua izaten jarraitzen du eta moldeari dagokionez, bizkar ausartak ikusiko dituzu. Alkondara estiloko soinekoak ere nagusituko dira kolekzio berrien artean. Estilo klasikoa gustuko baduzu joera minialistaren aldeko apostua egin dute diseinatzaileek 2015erako. Soinekoa aukeratua daukazuenean, orrazkeran eta makillajearen pentsatzen has zaitezke. Zure inguruan dauden talde profesionalak lagunduko dizute ederkien ematen dizun estiloa aukeratzen.

6. Ezkontza pertsonala.

Ezkontza bat ez da soilik jatetxea eta erropa. Horietaz aparte, beste hainbat gauza aurreikusi behar dira: cateringa, lorak, gonbidapenak, musika, gonbidatuentzako detaileak... Aukera za-



bala dago eta denboraz begiratzen joatea komeni da. Zuen ezkontza erabaki guzti horien arabera izango da. Pentsatu ezkontzak momentu desberdinak dituela (zeremonia, koktela, bazkaria, dantza...) eta gogoan izan une hauetako bakoitzean zer egin dezakezuen, azkenean ezkontza berezia eta originala lortzeko.

7. Bikotearen kontua da.

Ezkontza ez da bikotearen kide baten

arazoa izan behar. Oso garrantzitsua da bion inplikazioa lortzea.

8. Denboraz antolatu.

Antolaketa-lana urtebete lehenago hasiatez da ohizkoena, baina posible da hilabete gutxitan egitea. Egokiena lasaitasunez jardutea eta momentu bakoitzarekin gozatzea da. Egun batzuk lehenago dena prest baldin badaukazue, lasaiago biziko duzue ezkontza eguna eta bakarrik ondo pasatzeko asmoa izango duzue buruan.

arropak eta osagarriak

laguinda

Bidebarrieta, 18 943 20 84 41

San Juan, 1
943 20 33 29

Izadi

943 20 88 47
688 67 89 34

LORA DENDA
Blanca

Isasi, 16 eta
El Corte Ingles:
T. Etxebarria eta Ego-Gain

M A R S I

BIDEBARRIETA, 1
639403457
943201626

EZKONTZA tartak
eta
despedidetarako
(ENKARGUZ)

ANTXON
DEGUSTAZIOA

T. ETXEBARRIA, 13-
Tel. 943 20 63 22
943 20 05 47

Bidebarrieta, 28 943 20 79 73

San
Andres
gozotegia

Ezkontzetarako tartak eta
opariak prestatzen ditugu

F. PASCUAL

Arane, 6
Telf. 943 20 61 64
Faxa. 943 20 85 43
20600 EIBAR

VIRGINIA PASCUAL

Zubiaurre, 36 (behea)
Tel. eta Faxa: 943 17 68 28
www.cocinaspascual.com
48260 ERMUA

SUKALDE ALTZARIAK
BARNERAKO

Loiola, 24 -AZPEITIA-
Tfnoa. 943-815608
www.kiruri.com
info@kiruri.com

Kiruri

- Ezkontzak
- Eguneko menua
- Taldeko menuak
- Karta...

"Tiro Pitxoi Jatetxea" ARRATE
943 20 88 59

- EZKONTZAK
- JAUNARTZEAK
- BATAIOAK...

MENUA eta
KARTA aukeran

AIZKIBEL, 10
- AZKOITIA -
943-853412

Joseba
JATETXEA

josebajatetxea@hotmail.com

www.kantabriaajatetxea.com Arrate Gaina, 4
kantabria@kantabriaajatetxea.com 279 Postakutxa
20600 EIBAR
Tel. 943 121 262

KANTABRIA
Jatetxea

EZKONTZAK
BATAIOAK
JAUNARTZEAK

40. urteurrena

AZKOITIKO bihotzean, Joseba Jatetxea
zuen esku era guztietako **EZKONTZAK**
eskainiz, 55€tik hasita. **ZUEN ZAIN GAUDE!**

RESTAURANTE KANTABRIA
KANTABRIA JATETXEA

Ekintzaileak eta autoenplegua modan daude. Eustat-en arabera, 2012an 273 enpresa berri sortu ziren Debabarrenean. Negozioa martxan jartzea erabakitzen dutenen perfila antzerakoa da: Debegesara laguntza bila joandakoen %70 25-45 urte bitartekoak ziren eta perfil hori betetzen du Jon Hernandez Iriondok. 26 urteko gazteak hilabete honetan Rocket Bike zabaldu du Ipuruako Eroskiko merkataritza galerian.

- Nola hasi zen Rocket Bike proiektua?

Edozein enpresa sortzerako orduan behar duzun lehen gauza ideia bat da. Gero ikusi beharko da ideia hori bideragarria den ala ez, eta hortik aurrera lanari ekin. Nire bizitza beti egon da bizikletari lotuta; nire ametsa da, niretzat ez dagoelako bizikletaren munduan lan egitea baino gauza hoberik. Rocket Bike proiektuan zortzi hilabete egin dut lan, eta enpresa estrategia zeharo aldatu da hasi nintzenetik. Hasiera batean Ermuan denda jartzea pentsatzen nuen, baina gustuko lokalik aurkitzen ez nuen Eibarren begiratzen hasi nintzen dendarako lokal ezin hobe aurkitu nuen arte. Ipuruako Eroskiko merkataritza galerian gaude. Toki aparta da, bezero gehienak kotxez etorriko direlako eta arazorik ez dutelako izango autoa aparkatzerako orduan.

- Nolako izan zen denda ireki baino lehenagoko prozesua?

Oso luzea. Aholkularitza enpresa baten laguntza kontratatu genuen, eta hortik aurrera pixkanaka dena eraikiz joan ginen. Nire lehenengo enpresa Lanbideren laguntzaz eta beste erakunde publikoen laguntzaz

sortu nuen, baina oraingo honetan, ekimen pribatuekin sortzea erabaki dut, zeren enpresa publiko hauek ematen dituzten diru laguntzak ezin baitira beti euki. Negozioak gauza erraza dira: zenbat daukazu eta zenbat zaude inbertitzeko prest.

- Zein izango da Rocket Bike ezagutzera emateko estrategia?

Sare sozialak. Sekulako tresnak dira eta gure ustez jende askorengana heldu gaitzke hauek ondo erabilia. Irratian ere iragarki bat daukagu eta hilabete osoan mantenduko dugu. Gure nahia bizikleta kalera ateratzea da, ibiltzeko eginak daude, jendeari hurbildu behar zaizkie. Bizikleta bat ikutzean sentitzen duzuna ezin da beste era batera sentitu; horregatik, Eibarren bizikletaren mundua ezagutzera emateko hainbat ekimen bultzatzea gustatuko litzaiguke.

- Rocket Bike-n eskaintza zertan izango da berezia?

Besteek eskaintzen ez dituzten markak eskainiko ditugu. Kalitatea prezio onean emateko hainbat akordioetara ailegatzin ari gara. Jendeak bere kirol gustukoena egiteko materialik onena izatea nahi dugu.



ADRIAN ALVAREZ

Jon Hernandez
(ROCKET BIKE)

"Materialik onena eskaini nahi diogu bizikleta zaleari"



Jorge Imaz Bolinaga
KOMUNITATEEN
ADMINISTRAZIOA

Bidebarrieta, 6 - 1. ezk.
Tlf. 943 53 03 03
imazjorge@hotmail.com

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelarrera,
gaztelerratik euskarara,
eta ingelesez euskarara.

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com

Enpresa berria Urrats Baten

Lanbide Heziketako ikasleei eta ikasle ohiei enpresa berriak sortzen laguntzeko asmoz sortu zen Urrats Bat programa martxan dago aurten ere Armeria Eskolan. 2013-2014 ikasturtean sei proiektu landu zituzten, horietako bi prototipo-fasean eta beste lauak, berriz, negozio-plana garatuta. Negozio-plana garatu zuten artean bi esperimendazio-fasera pasatu eta gero, enpresa sortzera ailegatu da horietako bat: Irudilabs ikus-entzunezko eta komunikazioko zerbitzuak ematen dituen enpresa Iñaki Ovejero bultzatutako proiektutik sortu da. Mekatronika Industrial zikloko ikasleak aurretik Arte Ederretako ikasketak zituen, ikus-entzunezko arloan, eta gaur egun "freelance" bezala dihardu Canal+ katearentzako beharrez. Gaztea Madrilera joan da bere proiektuarekin aurrera jarraitzeko. Adibide honi jarraituta, bere proiektua edo negozio-idea garatzeko interesa dutenek urratsbat@armeriaeskola.com helbidera idatzita jar daitezke programaren arduradunekin harremanetan.



Iñaki Ovejero Mekatronika Industrial zikloko ikasleak "freelance" dihardu Canal+-entzat.

Poloniako ordezkariak Armeria Eskolan



Poloniako ipar-ekialdean dagoen Bialistok hiritik etorri dira gurera.

Urriaren 20tik 23ra Poloniako ordezkariak Armeria Eskolan bisitan egon dira. Poloniar horiek, Armeria Eskolarekin batera, beste herrialdeetako Lanbide Heziketa eta horrek sare industrialarekin daukan harremanak ezagutzera ematea helburutzat duen Europako proiektu batean parte hartzen ari dira. Hain zuzen ere, bisitaren asmoa Euskal Herriko Lanbide Heziketa eredutzat hartzea da, euren eskualdera egokituta aplikatzeko. Ordezkariak Poloniako ipar-ekialdean dagoen Bialistok hiritik etorri dira eta bisita egunetan, Armeria Eskola eta bere funtzionamendua ezagutzeaz gain, Tekniker teknologia zentroa, Tknika LH-ko Berrikuntza Zentroa, Aretxabaletako Lanbide Heziketako Eskola eta Arrasateko Alecop enpresa ikusi dituzte, besteak beste.

Txiletik Uni-ra hobekuntza ikastarora egitera

Uni Eibar Ermua BHI-n Txileko bederatzi ikasle hartu dituzte ikasketa ekonomiko-administratiboetan trebatzeko, Txileko Hezkuntza Ministeritzaren beka bati esker. Hobekuntza ikastaroan, besteak beste, negozio munduan, finantzetan, zerbitzuetan eta ekintzailtasunean Txilen zein beste edozein herrialdetan beharrez jarduteko prestakuntza jasoko dute ikasleek.




AZKARATE TELLERIA'tar FERNANDO

4. urteurrena: 2010-XI-7

"Beti izango zara
gure bihotzetan"

ETXEKOAK





IKER DIAZ DE CERIO (nekazari-teknikaria)

"Gure olioaren kultura Eibarren zabaltzen saiatuko naiz"

Datorren azaroaren 11rako, asteartea, ...eta kitto! Euskara Elkarteak olio-dastaketa saioa antolatu du. Iker Diaz de Cerio Arabar Errioxako Olio eta Olibondoaren Mahaiko kidearen eskutik egingo da saioa, arratsaldeko 19.00etatik aurrera, ...eta kitto!-n bertan. Izena emateko epea zabalik dago eta azaroaren 7an amaituko da. 5 euro balio du, 4,50 euro ...eta kitto!-ko bazkideentzat. Izena emateko ...eta kitto!ra deitu (943200918) edo bertatik pasa daiteke (Urkizu 11, solairuartea). Gehienez ere 20 laguneko taldea osatuko da.

- Noiz sortu zen Arabar Errioxako Olio eta Olibondoaren Mahaia eta zeintzuk osatzen duzue?

Mahaia pasa den urtean sortu zen, Arabar Errioxako olioaren baretzeko, garatzeko eta goraiatzeko. Esan beharra dago Mahaiaaren estruktura Adostasun Foru batena dela; bertan Eusko Jularitza, Arabako Foru Aldundia, Arabar Errioxako Kuadrilla, Uaga Sindikatua, Moredako, Oiongo eta Lantziegoko trujalak, ADR, Oleum Proiektua eta ekoizleak daude.

- Zer nolako berezitasunak ditu Arabar Errioxako olioak?

Gure Olioaren Arroniz bariatatekoa da, monobariatetala gehien bat eta Moredan, Lantziegon edo Oionen egindakoa. Goi mailako olio bat, tomate zaporekoa, mikatz puntu interesgarri batekin eta pikantea baita.

- Zenbat oliba-olio ekoizten da Arabar Errioxan?

Joan den urtean 80.000 litro ekoiztu genituen eta horretarako 400.000 kg. oliba erabili ziren. Gure olibak gehien bat Arroniz bariatatekoak dira, hala ere badaude arbekina, pikual eta enpeltre bariatatekoak ere.

- Nolako da olioaren sortzeko prozesua?


Garbi izan behar dugu olioaren fruta zuku dela. Beraz, ekoizpenaren prozesua oso erreza da: olibak errotara sartzen dira, errotan pasta lortzen dugu, pasta hori batidora batean batzen dugu eta hemendik zentrifuga edo dekanter batetik pasatzen da; leku honetan olioari ura eta zinkinkeria kentzen zaizkio. Gero olioaren 2-3 hilabetez gordetegi batean gordetzen da azken zinkinkeria galdu arte.

- Eibarren zer eskainiko diguzu?

Gure olioaren kultura zabaltzen saiatuko naiz. Gainera, olioaren artean onak eta txarrak bereizteko tresnak eskainiko dizkiet jendeari. Asko ikasiko dute, eta gainera gure olioaren dastatzeko aukera izango dute.

Sanandresak 2014 kartela

Iratxe Unanuek, Leire Kareagak eta Asier Lopez de Viñasprek osatutako epai-mahaia aurtengo San Andres kartel lehiaketako irabazleak aukeratu ditu: helduen mailan Vanesa Salvador Ibañezek aurkeztutako I Love Sanandresak izenburukoak jaso du saria eta hori izango da jaiak iragartzeko erabiliko dutena. Umeen artean, 11 eta 14 urte bitartekoan mailan saria Marina Lahidalga Gimenezek eskuratu du "Ez izan asto eta etorri, txo!" izenburukoarekin eta 10 urtera artekoan mailan, berriz, irabazlea Lore Arregi Cabazon izan da, "Eskegita" izenekoarekin. Edizio honetan 81 lan lehiatu dira: 15 helduen mailan, 20 kartel 11 eta 14 urte bitartekoan eta 46 lan 10 urtera arteko kategorian.



Low Riders, Aldatz tabernan

Gaur gauean, 23.00etatik aurrera Zarauzko Low Riders taldeak kontzertua emango du San Juan kaleko Aldatz tabernan. Marek (gitarra akustikoa, pianoa, ahotsa), Michal (gitarra elektrikoa, koroak), Wili (bajua) eta Nagore (bateria, ahotsa) laukoteak osatzen duen taldeak country eta hillbilly doinuak eskaintzen ditu batez ere, rock, rhythm&blues eta psikodeliarekin nahastuta.

Mikologiari buruzko argazki erakusketa ipini du ikusgai Roberto Zamanillo Arnaizek El Corte Ingles-eko ekitaldi aretoan. Abenduaren 27ra arte egongo da erakusketa bisitatzeko aukera, 14.30etatik 21.30etara.

Perretxikoen argazki erakusketa



Asteburu ezin musikialagoa

Eibarko XXIII. Musikaldiaren barruan antolatutako emanaldiak azken txanpan sartu dira eta, astelehen eta martitzenean abesbatza banak kontzertua eman eta gero, asteburu osoan musikarekin gozaten jarraitzeko aukera izango dugu. Gaur 20.30etan Andres Egiguren Orkestrak eta Ainhoa Franco sopranoak Coliseoan kontzertua emango dute elkarrekin (8 euro). Zati bitan banatuta egongo den egitaraua honako piezek osatzen dute: lehen zatian "Figaroren ezteiak" (obertura, W. A. Mozart), "Donde lieta usci", "La Bohème" (G. Puccini), "Carmen" (suite, G. Bizet), "Comme autrefois dans la nuit", "Les Pêcheurs des Perles" (G. Bizet), "La Traviata" (obertura, G. Ver-

di), "Bel raggio lusinghier" eta "Semiramide" (G. Rossini) eskainiko dituzte; eta bigarren zatian, berriz, "Semiramide" (obertura, G. Rossini), "Una voce poco fa", "Il Barbiere di Siviglia" (G. Rossini), "IV. mugimendua, 7. sinfonia" (Beethoven) eta "Casta Diva", "Norma" (V. Bellini).

Bihar Aitor Olea Juaristi dirangarrak organo kontzertua emango du 20.00etan San Andres elizan (doan), egitarau honi jarraituta: "Praeludium und fuga G-dur BWV 541" (J. S. Bach, 1685-1750), "Pièce héroïque" (César Franck, 1822-1890), "Praeludium und fuge über B.A.C.H." (Franz Liszt, 1811-1886) eta "Prelude et fugue sur le nom D'Alain" (Maurice Duruflé).



Ainhoa Franco.



Aitor Olea.

Eta domekan, 12.30etan Usartza txistulari bandak Molto Vivace metal boskoteak, Harituz soka laukoteak eta Isabel Laspiur pianistak lagunduta Coliseoan emango duen ganbera kontzertuak agurtuko du Musikaldia. Elena Perezek zuzenduko duen emanaldian egitarau honi jarraituko diote: "Aitona" (J. A. Erauzkin, txistu banda), "Bidoinu koxkor" (Kandido Albistur, txistu-piano), "Sokamuti-

la" (J. L. Franzesena, txistu-piano), "Artzain Kantak" (Eusebio Basurko, txistu bakarlarria), "Ana Mari" (Isidro Ansoarena, txistu-piano), "Mari Anboto" (J. L. Franzesena, txistu-piano), "Kulunka" (Javier Ituarte, txistu-hari laukote), "Idazmakina" (L. Andersen, txistu-metal), "Jolasune" (Javier Ituarte, txistu-metal boskote) eta "Txapela Buruan" (Carlos Sanchez Ekiza, txistu-metal boskote-perkusioa).



Munduko Paisaiak liburutegian

Aurten ere Munduko Paisaiak programari jarraituko diote Juan San Martin liburutegian eta azaroan Nepal izango da egiten diren jardueren ardatza. Eibarko nepaldar taldearekin elkarlanean eta Liburutegiak Topaleku izenekoaren barruan Nepal ezagutzera emateko gida bibliografikoa eta interesgunea prestatu dituzte. Astelehenean, 18.30etan Iciar Bollainen "Katmandu: un espejo en el cielo"-ren inguruko bideo-foruma egingo da Portalean. Eta azaroaren 10erako Nepalgo sukaldaritzta tailerra antolatu dute (izena eman behar da aurretik, liburutegian). Hilaren 17an "Conociendo Nepal" hitzaldia hartuko du liburutegiak (18.30etan) eta 28an, Maite Franco ipuin kontalariak "Nepalگو ipuinak" kontatuko ditu (18.00etan umen liburutegian).

Azarorako erakusketak

Bihar hasi eta azaroaren 30era arte hiru argazki erakusketa hauek egongo dira ikusgai, Klub Deportiboko Argazki Taldekoen ekimenez: Miguel Cabezas (Irun) argazkilararen lanak El Ambigu kafetegian ikus daitezke, Klub Deportiboan Mariano Cano (Jerez de la Frontera) argazkilararenak eta Bakarne Elejalde eibartarrarenak Portalea tabernan.



"Peter Pan" musikari agur

Aurreko zapatuan agurtu zuten "Peter Pan" musikala funtzio bikoitzean Bilboko Euskalduna jauregian. Argazkian Bergarko Musika Eskolakoen ikuskizunetan parte hartu duten hiru eibartarrak Garfio kapitanarekin batera.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, GAIKA, haraiñegun bederatzi urte egin zenduazena-eta. Muxu bat famelixa guztiaren eta, batez be, Garaziren partez.



Zorionak, EDURNE Telleria Garcia, hillaren 28xan bi urte egin zenduazena-eta. Patxo bat aitxixa, amama eta famelixaren partez.



Zorionak, MARTIN, atzo bi urte egin zenduazelako. Zelako zoriontasuna emon deskuzun etorri ziñanetik.



Zorionak, MAIA, martitzenian zortzi urte bete zenduazena-eta. Patxo haundi bat etxeko danon partez, printzesa!



Zorionak, ASIER, martitzenian zazpi urte bete zenduazena-eta. Muxu potolo bat Eibarko famelixaren partez.



Zorionak, EDER, martitzenian urtebete egin zenduan-eta. Muxu haundi bat aitxixa-amama eta osaba-izeben partez.



Zorionak, MAIALEN, astelehenian bi urte bete zenduazena-eta! Muxu haundi bana etxekuen partez.



Zorionak, IRATI, azaruaren 4an zortzi urte beteko dozuz-eta. Etxekuen eta, batez be, amamaren partez.



Zorionak, ANDER!, gaur lau urte egitten dozuz-eta. Muxu haundi bat aitta, ama eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, EKAIN, mutil haundi, martitzenian 7 urte egin zenduazena-eta. Zazpi tirakada belarrixetatik eta patxo potolua etxekuen partez.

hildakoak

- Marciano Cieza Rodriguez. 86 urte. 2014-X-22.
- M^a Pilar Irigoien Oria. 81 urte. 2014-X-23.
- Iñaki Baglietto Arrese. 50 urte. 2014-X-24.
- Javier Arizmendiarieta Muñoz. 64 urte. 2014-X-25.
- Cecilia San Martin Ortiz de Zarate. 87 urte. 2014-X-25.
- Rodolfo Riaño Oribe. 65 urte. 2014-X-25.
- Ernestina Garcia Cobos. 81 urte. 2014-X-26.
- Isabel Etxeberria Baglietto. 96 urte. 2014-X-27.
- Eugenia Torres Gomez. 77 urte. 2014-X-28.

jaiotakoak

- Aya Bouzelmad. 2014-X-17.
- Unax Cordero Rivero. 2014-X-17.
- Manex Mutilba Zubizarreta. 2014-X-21.
- Ian Blanco Jaio. 2014-X-24.
- Sara Ouranou. 2014-X-26.



Zorionak, INTZA eta MALEN!, gaur zortzi urte betetzen dozuez-eta, neska haundixak!! Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ARIANNE (hiru urte) eta ROSA, eguaztenian urtiak bete zenduezen-eta. Etxekuen eta, batez be, zure lehengusña Maddiren partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

1ean: 17.00, 19.45, 22.30
2an: 17.00, 20.00
3an: 20.30

"Lasa y Zabala"

Zuzendaria: Pablo Malo



(2 ARETOAN)

1ean: 17.00, 19.45, 22.30
2an: 17.00, 20.00
3an: 20.30

"Vamos de polis"

Zuzendaria: Luke Greenfield



(ANTZOKIAN)

1ean: 19.45, 22.30
2an: 20.00
3an: 20.30

"Relatos salvajes"

Zuzendaria: Damian David



(ANTZOKIAN)

1ean: 17.00
2an: 17.00

"Ninja Turtles"

Zuzendaria: Jonath. Liesbesman



BARIXAKUA 31

HALLOWEEN JAIA

17.30. Umeendako: koko-jantzi lehiaketa, musika, jokoak... El Corte Inglesean.

GURE ESKU DAGO

19.00. Mahaia, azaroaren 8an 11.00etan Zurriolan egingo den mosaikorako bonoak saltzeko (5 euro). Deporren.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.30. Abesbatzaren kalejira. Untzagatik abiatuta.

MUSIKALDIA

20.30. Andres Egiguren Orkestra eta Ainhoa Franco sopranoaren kontzertua. Sarrera: 8 euro. Coliseoan.

KONTZERTUA

23.00. Low Riders (Zarautz) taldea. Aldatz tabernan.

ZAPATUA 1

GURE ESKU DAGO

12.00. Mahaia, azaroaren 8an 11.00etan Zurriolan egingo den mosaikorako bonoak saltzeko (5 euro). Deporren.



MUSIKALDIA

20.00. Organo kontzertua, Aitor Olea Juaristiren eskutik. San Andres elizan.

DOMEKA 2

MUSIKALDIA

12.30. Usartza Txistulari Bandaren ganbera-kontzertua. Coliseoan

ASTELEHENA 3

IKASTEN

16.00. Sendabelarren foroa: gaztainondoa eta bere propietateak. Portalean.

MUNDUKO PAISAIK

18.30. Bideo-foruma: "Katmandu: un espejo en el cielo" (Iciar Bollain). Portalean.

MARTITZENA 4

IKASTEN

10.00. Hitzaldia: "Motivo del cambio climatico", Antxon Olaberen eskutik. Armeria Eskolan.

JOSKINTZA TAILERRA

17.00 eta 18.30. Portalean.

HARIXA EMOTEN

19.00. Asier Serranoren "Abisalia". Liburutegian.

EGUAZTENA 5

IKASTEN

11.00. Kafe-tertulia: "Control publico o privado de las cajas de ahorros a bancos: futuro de la obra social". Untzaga jubilatuen etxean.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Abesbatzaren entsegu. San Andres elizako lokalean.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

19.30. "Estatu Batuetako parkeak. III", Periko Iriondoren eskutik. Klub Deportiboan.

EGUENA 6

IKASTEN

10.00. Hitzaldia: "Cooperativa", Paco Salegiren eskutik. Armeria Eskolan.

KALERATZEAK STOP

19.00. Kaleratzeak Stop Debabarrenaren batzar irekia. Portalean (3. solairuan).

KALEETAN KANTUZ

19.30. Abesbatzaren entsegu. San Andres elizako lokalean.



YELLOWSTONE ETA GRAND TETON PARKEAK IKUSGAI DEPORREN

Periko Iriondok Amerikako Estatu Batuetako parkeen inguruko ikus-entzunezkoen hirugarren emanaldia eskainiko du datorren eguaztenean, azaroaren 5ean, arratsaldeko 19.30etan. Oraingoan Yellowstone eta Grand Tetoneko parkeen berri emango du Klub Deportiboan.

HOROSKOPOA

ARIES

Asteburuan ezagutu zenuen lagun horrek kilika baino gehiago egin ditu. Ia bere begiek zer esaten dizuten bihar.

TAURUS

Ordu aldaketak triste ipintzen zaitu. Argitasuna arnasa hartzea beste behar duzu: kolore biziko erropak jantzi!

GEMINI

Uda aurretik aldaketa prozesu sakonean murgildu zinen eta ziklo hori ixtera doa. Orain gozatzeko sasoa helduko zaizu.

CANCER

Lagaizu mobila behingoz pakean! Egun osoa ematen duzu sms-ak bidaltzen... Kontrolatu, dirua aurreztuko duzu-eta.

LEO

Badakizu egun hartako haserrea ez duzuela oraindik konpondu. Burutik ezin kendu, erremiak hor jarraitzen du.

VIRGO

Bizitza lasaiago hartu beharko zenuke: zure buruarekin egoteko denbora hartu. Mendira joan, arnasa hartu eta erlaxatu.

LIBRA

Denbora asko pasatzen duzu komunean. Zer demontre egiteko baina? Etxekoak beti daukazazu pasilloan zu urten zain.

SCORPIUS

Armarioak txukundu, udako eta neguko erropak nahastuta dituzu-eta. Agurtzen hasi manga motza eta linozko prakak.

SAGITTARIUS

Aste honetan ezagutu duzun lagun hori ez da zurekin gogoratu ere egiten. Ea besteren batengan fijaszen zaren.

CAPRICORNIUS


Non duzu burua? Bitaminak edo zerbak behar duzula uste du, dena ahazten zaizu-eta. Arreta ipini zure gauzetan.

AQUARIUS

Ezetz esaten ikasi behar duzu, bestela azkenean ezingo duzu ezer ganoraz egin. Indarrak dosifikatu eta zaindu.

PISCIS

Osasun aldetik makaltxo zabilta. Hobe asteburuan etxean gelditzen bazara; gero izango duzu parrandarako astia.



erakusketak

- ✓ **Azaroaren 2ra arte**
CARMEN MOSTAZAREN zeramik erakusketa.
Topalekuan.
- ✓ **Azaroaren 9ra arte**
MARIA ROMERO, MIKEL RUIZ PEJENAUTE
ETA RAISA ALAVAREN "Loturak" erakusketa.
Portalean.
- ✓ **Azaroaren 16ra arte**
INDALEZIO OJANGUREN XXVII. ARGAZKI
LEHIAKETA. *Portalean.*
- ✓ **Azaroaren 30era arte**
MARIANO CANO-REN argazki erakusketa.
Klub Deportiboan
BAKARNE ELEJALDEREN argazki erakusketa.
Portalea tabernan.
MIGUEL CABEZAS-EN argazki erakusketa.
El Ambigu tabernan
- ✓ **Abenduaren 27ra arte**
ROBERTO ZAMANILLO ARNAIZ-EN mikologia
argazkien erakusketa. *El Corte Inglesean.*

Ikastaroak

- ✓ **Argazki ikastaroa (oinarri-oinarrizkoa)**
Noiz: azaroak 5, 12, 19 eta 26 eta abenduak 1 (19:30-21:30) Arrate Kultur Elkartearen.
Izen-ematea: bulegoan, astelehenetik eguenera (17.00-19.00), 943-202299 telefonoan
edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzita. Prezioa: 30 euro (25 bazkideentzat).

lehiaketak

- ✓ **San Andres bertso-paper lehiaketa**
Lanak aurkeztea: Azaroaren 10era arte. Informazioa: ...eta kitto! Euskara Elkartearen,
943-200918.

			2			6	
		8	1	9			5
				6	7	9	1
4				8			2
	6						8
8			3				7
7	3	9	6				
1			5		2	3	
	4			9			

farmaziak

- ✓ **barixakua 31**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostotarren, 10)
- ✓ **zapateria 1**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **domeka 2**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)
- ✓ **astelehena 3**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **martitzena 4**
EGUNEZ **Golkoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **eguztina 5**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **eguna 6**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **barixakua 7**
EGUNEZ **Castañe** (J. Etxebarria, 7)

GAUEZ BETI
Azkue (T. Etxebarria, 4)

SUDOKUA

8	9	7	1	2	4	3	6	5
6	2	3	9	5	7	8	4	1
1	5	4	3	8	6	7	9	2
5	1	8	4	6	3	2	7	9
2	3	6	7	9	5	4	1	8
4	7	9	2	1	8	6	5	3
9	8	5	6	4	2	1	3	7
7	4	2	5	3	1	9	8	6
3	6	1	8	7	9	5	2	4

AURREKOEN EMAITZA

telefono jakingarriak

SOS deiak.....112
Pegora010
Udaletxea943 70 84 00
Portalea.....943 70 84 39
Udaltzaingoa.....943 20 15 25
Mankomunitatea 943 70 07 99
Debegesa943 82 01 10
KIUB943 20 38 43
Epaitegia943 03 34 00
Iberdrola901 20 20 20
Naturgas.....902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
Gurutze Gorria...943 22 22 22
Mendaro osp.....943 03 28 00
Anbulategia943 03 25 00
Torrekua943 03 26 50
Errepideak.....902 11 20 88
Ertzaintza943 53 17 00
Eusko Tren902 54 32 10
Pesa.....902 10 12 10
Taxiak943 20 30 71
.....943 20 13 25
Alkohol.Anon....629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunero: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunero: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.15etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.15etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

– 6-8 lagunentzako duplexa alokagai Luz Saint Sauveur-en eski denboraldirako. Tel. 699-828526.

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. 3 logelakoa. Tel. 685-380585.

– Pisu ia berria alokagai Elgetan. 2 logela, egongela-jangela, sukalde osotua eta 2 komun. Igozailua eta kalefakzioa. Egoera onean eta sartzeko moduan. Tel. 606-083992.

– Pisua hartuko nuke Eibarren errentan. 3 logelakoa. 450-500 euro hilean ordaintzeko prest. Tel. 632-607193.

1.3. Konpartitzeko

– Eibarren pisua konpartitzeko lagun baten bila nabil. Tel. 660-833346.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Gazteendako lokala hartuko genuke Ipurua, San Kristobal eta Abontza inguruan. Tel. 685-726084.

– Gazteentzako lokala alokagai. 70 m². Barra eta zerbitzuarekin. Erdialdean. Tel. 679-425467.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:

Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.

Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Externa edo orduka. Tel. 648-180233.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Gida baimena eta erreferentziak. Interna. Tel. 631-343232.

– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Tel. 631-705406.

– Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 602-820429.

– Emakume arduratsua eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 632-970524.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 698-567680.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-942816.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 674-342769.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 652-047799.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 653-811764.

– Neska euskalduna eskaintzen da goizez umeak zaintzeko edo eskolara eramateko. Tel. 606-187556.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 680-121252.

– Neska eskaintzen da nagusiak gauzez zaintzeko. Baita umeak zaindu eta garbiketarako ere. Tel. 674-713262.

– 29 urteko emakume euskalduna, unibertsitate ikasketekin, eskaintzen da arratsaldetan eta asteburuetan lan egiteko. Tel. 646-369330.

– Emakume eibartarra eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 633-244397.

– Erizain laguntzailea eskaintzen da goizez orduka nagusiak zaintzeko. Tel. 616-607121.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-846244.

– Geriatria titulua daukan emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Esperientzia. Tel. 652-532589.

– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 632-395829.

– Emakumea eskaintzen da asteburuetan orduka zein interna lan egiteko. Tel. 602-186462.

– Gizona eskaintzen da lan egiteko. Tel. 628-740765.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 632-800519.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-691378.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Orduka. Tel. 686-265293.

– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-768803.

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeak, tabernak eta pegorak garbitzeko. Erreferentziak. Tel. 631-282203.

– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 671-258740.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 638-338816.

– Emakumea eskaintzen da barrako zein jangelako kamarera jarduteko. Esperientzia. Tel. 699-286521.

– Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 617-571210.

– Emakume euskalduna eskaintzen da garbiketara lanak egiteko. Tel. 631-075101.

– Mutil euskalduna eskaintzen da sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 631-075101.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 626-197217.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 633-889235.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 640-315602.

– Emakumea eskaintzen da kamarera jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 688-394038.

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 679-912841.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-523426.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 606-354982.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita ospitalean ere. Tel. 632-607193.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 632-337083.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta kamarera jarduteko. Orduka. Tel. 631-771952.

4.2. Langile bila

– Emakume euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 687-262868.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– DBH, Batxilergo eta Heziketa Ziklotarako prestakuntza. Matematikak, Ekonomia, Fisika, Kimika, Euskera, Ingelesa, Gaztelania eta Estatistika. Tel. 685-739709 eta 943-127365.

– Euskarazko klaseak ematen ditut. Azterketarako prestaketa: perflak, HABEren mailak, EGA. Baita ikastaroko eta klase partikularak. Tel. 620-608065.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Gazte logela salgai: armairua, 90eko ohea eta eskritorioa. Tel. 645-007388.

– Bizikleta estatikoa salgai. BH Athlon markakoa. Ia erabili gabe, oraindik garantiarekin (2015eko amaierara artekoa). Tel. 645-007388.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Astelehenean ume txiki baten zapata arrosa galdu genuen Bidebarrieta inguruan. Aurkitu baduzu, deitu mesedez. Tel. 620-608065.

– Zilarrezko pultsera agertu zen Sagardo Egunean. Txapan izena du. Jabea ...eta kitto!-tik pasa daiteke. Tel. 943-200918.



(B)

**Diru (B)eltza,
gizarte-zerbitzu
(B)eltzak**

**“A” gizartea
lortzeko**

eskatu beti faktura

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

 **ÚNETE A LA ECONOMÍA
TRANSPARENTE**


www.ekonomiagardena.net



Gipuzkoa
BERRIA



MONUMENTU ARTISTIKOA



LASA JATETXEA



**250 LAGUNEN DAKO
JANGELA**



El Diario Vasco
"Más gastronomía"
Sariaren irabazlea
2009an,
BANKETEETAKO
GIPUZKOAKO
JATETXE
ONENA moduan.



Ozaeta Jauregia -BERGARA-
Tel. 943 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29
www.restaurantelasa.es



**ERA GUZTIETAKO
BANKETEK OSPAIZEKO
toki bikaina**